

**TESTU OSOA
GETXOKO UDAL AZOKAREN ARAUTEGIA****I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****I. KAPITULUA****ZERBITZU PUBLIKO ETA KUDEATZEKO MODUEI BURUZKO ARAUTEGIAREN XEDEA****1. artikulua**

1. Udal azoka da jabari publikoko higiezia, NAHITAEZKOA EZ DEN azokaren zerbitzu publikoa eskaintzera bideratutakoa. Postuen izenpean, elikaduraren establezimenduak eta bestelako erabilera dutenak multzokatzen dira.

2. Udal azokaren helburua biztanleei horniduraren banaketa ziurtatzea da. Hala, sal-tokiak elkartuz, prezioetan ekonomia lortzeko eta pertsona kontsumitzaileei prestazio egokia eskaintzeko lehia librea da, 7/85 Legeak, apirilaren 2koak, Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzkoak, azkenekoz 2018ko abuztuaren 4an eguneratuak, 25. artikuluan xedatutakoaren babesean.

2. artikulua

Azokaren zerbitzu publikoa udal erantzukizuna da, indarreko legediak xedatutako baldintzetan, eta eskaintzeko zuzeneko kudeaketaren edo zeharkako kudeaketaren modalitatea erabiltzen da, arau aplikagarrietan aurrez ikusitakoari jarraiki. Gaur egun Getxoko udalerrian bakarrik udal azoka bat dago eta zeharka kudeatzen da, beraz, arautegi honen helburu bakarra azoka kudeaketa-sistema horrekin arautzea da.

Hala eta guztiz ere, udala hurrengo funtzioez baliatuko da: administrazioaren esku-hartzea, osasun zaintza, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideei erreparatzean ikuskaritza eta legez onartuak dituen aginpideak erabili eta betetzeko bestelako funtzioak.

3. artikulua

1. Funtzionamenduari eta administrazio-araubideari dagokionez, udal azokak arautegi honetan eta postuak beren probetxuan erabiltzeko emakidaren eskubideei nahiz zerbitzua kudeatzeari buruzko kontratua adjudikatzeko onartzen diren baldintzen ple-guetan ezarritakoa beteko du, bertan garatzen diren jarduera berezietarako legezko eta araubidezko xedapenak kontuan hartzeaz gain.

2. Arautegi honen xedapenak osatzeko, udal azokak, ezaugarri bereziei erreparatuz, barneko funtzionamenduari buruzko araudia izan dezake. Zerbitzuaren adjudikaziodunak (aurrerantzean, «adjudikazioduna») eta postuak beren probetxuan erabiltzeko emakida eskubideen pertsona fisiko edo juridikoen gehieneko ordezkariak (aurrerantzean, «titular emakidadunak») batera proposatu ostean, Getxoko Udalak onartuko du.

3. Adjudikaziodunak udalari jakinarazi beharko dio edozein egoera edo berrikuntza aipagarri enpresa adjudikaziodunaren egoera ekonomikoaren inguruan, azokaren kudeaketa-organoak, baldintza fisikoak edo merkataritza-baldintzak aldatzeari buruz edo beste edozein, zerbitzuaren edota kontratuaren funtsezko elementuei eragiten badie.

II. KAPITULUA**INSTALAZIO OSAGARRIEI BURUZKOA****4. artikulua**

Laguntzako instalaziotzat jotzen dira merkaturaren edo produktuak erakustearen jarduerarako ez diren eta biltegi edo hozkailu zerbitzurako erabiltzeko bideratuta ez dauden gelak.

**5. artikulua**

Postu eta instalazio osagarriak, baita udal azoka osatzen duten gainerako elementuak ere, jabari publikoaren ondasunak badira, besterenezinak, enbargaezinak eta preskribaezinak dira.

Halaber, adjudikaziodunaren hartzekodunek azokaren arautegi honen zehaztapenak eta, bidezkoa bada, azokaren barneko funtzionamenduari buruzko araudia bete beharko dituzte.

6. artikulua

Merkatuan gara daitezkeen merkataritza-jarduerak aldeztu aurretik adjudikaziodunek baimenduko dituzte eta Getxoko Udalak onartuko ditu. Izan ere, azkenekoak jarduerak eta udal azokaren azken helburua bateragarriak direla eta azokak behar bezala funtzionatzen duela zainduko du.

II. TITULUA**UDAL AZOKAREN FUNTZIONAMENDU ARAUAK****I. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****7. artikulua**

Adjudikaziodunak finkatuko ditu irekitze eta ixte ordutegia nahiz urteko funtzionamendu egutegia eta udalak onartu beharko du. Barneko eta kanpoko postuek ez dute ordutegi berdina izan beharrik.

Nolanahi ere, artikulua honetan xedatutakoa orokorrean merkataritza jarduera arautzen duten lege eta araubide xedapenez jasotako zehaztapenetara egokituko da.

8. artikulua

Udal azokaren instalazioetan aldeztu aurretik baimendu ez duen jarduerarik ezingo da garatu.

9. artikulua

Udal azokan jendeak ikusteko iragarkien oholza ipiniko da, oro har, oharretarako, erabakietarako eta iragarkietarako, interesgarriak badira titular emakidadun, kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat.

10. artikulua

Udal azokan erreklamazioen orri nahikoak egongo dira eskatzen dutenen eskura, indarreko araudiarekin bat.

11. artikulua

Adjudikaziodunak une oro zerga eta lan betebeharrak nahiz lege eta arau xedapen aplikagarriekin bat eska daitezkeen bestelakoak eguneratuak izango dituzte. Artikulu honetan xedatutakoa betetzen ez bada, arau-hauste larritzat joko da.

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko arau xedapenak, DBLO, nahitaezko aseguruak kontratatzea eta jarduera legez garatzeko gainerakoak aplikagarriak izango dira.

12. artikulua

1. Titular emakidadunek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzu guztiak azaldu eta iragarriko dituzte. Berariaz, argi eta zehazki adieraziko dituzte jendeari saltzeko prezioak eta, bidezkoa bada, etiketak ikusgai egongo dira, indarreko legediarekin bat. Kalitate, jatorri eta, orokorrean, ezaugarriei begira, ez daude baimenduak iragarkiak eta produktu edo zerbitzuen erakusketa ala salmentak kontsumitzaileak nahasi edo erratzen badituzte.



2. Titular emakidadunek edota langileek, interesdunak uko egiten duenean izan ezik, erosketa-eragiketaren faktura sinplifikatua edo, hala badagokio, aurrekontua behar bezala azaldua entregatu beharko dute.

Dokumentuek gutxienez honako edukia izango dute:

- Datu pertsonalak edo, bidezkoa bada, sozietatearen izena.
- NAN edo AIZ edo IFK.
- Produktua/k.
- Prezioa.
- Kopurua.
- Data.
- Sinadura (tiketan izan ezik).

13. artikulua

1. Merkatua kontserbatu eta konpondu behar badira, baita lege eta arau xedapen aplikagarrietan ezarritako eskakizunetara egokitu behar badira ere, titular emakidadunen kontura egingo da, baina adjudikaziodunak edo udalak xede horrez formulatzen dizkion errekerimenduak bete beharko ditu, alde batera utzi gabe lortu behar dituzten udal lizentziak.

2. Titular emakidadunek beren kargura, udal lizentzia eskatu ondoren, egin ditzakete jarduerak garatzeko bidezkotzat jotzen dituzten hobekuntza obrak, betiere lokalen koka-pena eta azokako estetika nagusia aldatzen ez bada, ildo horri eutsiz berariaz baimentzen denean izan ezik.

3. Lokaletan egindako hobekuntzak, ordainik gabe, udalaren onurarako izango dira.

14. artikulua

1. Titular emakidadunek edo ordezkatzan dituzten pertsonak Osasun Ikuskapenarekin lankidetzan jardungo dute eta eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztuko dute, erakutsi edo biltegiatutako artikulua aztertze eta erraztasunak ematearekin batera, betiere azokaren barruan badaude. Gainera, ikuskapenaren ondorioz ibilgetu edo konfiskatu behar direnean, ez dute zailtasunik jarriko. Jarrera bera izango da beharrezkotzat jota, laginak hartu behar direnean.

2. Aurreko atalean xedatutakoa betetzen ez bada, Osasun Ikuskapenak egokitzen dituen kautelazko neurriak har ditzake, postua berehala ixtea edo jarduera geldiaraztea barne.

15. artikulua

Adjudikazioduna ur, elektrizitate eta zerbitzu horniduren titularrak izango da. Horrez gain, bere ardurakoak dira merkatuaren betebeharrak ekonomikoak, jarduera ekonomiko baimenduagatik egotzi ahal bazaizkie.

16. artikulua

Erakutsi edota salduko diren produktuak barruti baimenduan kokatuko dira. Kaxak, bilgarriak eta bestelako objektuak ezingo dira postuen kanpoaldean jarri edo azokako erabiltzaileen joan-etorriak ez dituzte eragotziko.

17. artikulua

Titular emakidadunek postuetan, biltegietan eta abarrean azokaren zerbitzuak eskatzen dituen konponketak baimenduko dituzte eta zerbitzu erkideek eskatzen dituzten zortasunak ahalbidetu ere bai.

18. artikulua

1. Adjudikaziodunak merkatuko instalazioen funtzionamendu eta kontserbazio ona zaindu beharko du, eta balizko kalteen erantzule zuzena izango da.



Getxoko Udalak ez du izango zaintza erantzukizunik.

Ildo horretatik, ez da izango bandalismoarekin, lapurretarekin edo ebasketarekin lotutako kalte eta galeren erantzule.

19. artikulua

Adjudikaziodunak dagozkion elementuen edukitzaileagatik arrisku orotarako aseguru izango du eta erantzukizun zibila sartuta egongo da. Poliza horrek ez du udala edukari buruzko aseguru-poliza izatez salbuesten, eraikinaren jabea den neurrian. Nolanahi ere, adjudikazioduna jabea ez denez, ez da bere erantzukizuna instalazioak eta eraikinaren jabeari dagokion guztia estaltzea.

III. TITULUA

ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENI BURUZKOA

I. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEEI BURUZKOA

20. artikulua

1. Izan dezaketen erantzukizun zibila, penala edo bestelakoa alde batera utzita, titular emakidadunek edo beren izenean ala horien mende jarduten duten pertsona baimenduek egindako arau-hausteen ardura izango dute, arautegiko xedapenak edo administrazio arau eta lege xedapen aplikagarriak urratzeagatik.

2. Udal administrazioak dituen zaintza eta ikuskapen ahalmen orokorrak kaltetu gabe eta kontratazioari buruzko indarreko legediak xedatutako baldintzetan, adjudikaziodunak une bakoitzean indarrean dagoen azokaren araudia betetzea zainduko du. Xede horrez, titular emakidadunei eta erabiltzaileei agindu eta argibide egokiak eman diezazkieke.

21. artikulua

Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

22. artikulua

Honako hauek arau-hauste arinak izango dira:

1. Ontziak, salgaiak eta bestelako objektuak baimendu gabeko tokian ipintzea.
2. Kanpoko jantzi egokiak ez jartzea edo erabilera eta garbitasun egoera ezin hobean ez egotea.
3. Garaiz ez ireki eta ixtea zehaztutako ordutegiaren arabera.
4. Merkataritza jardueraren salmenta postutik kanpo egitea, baita salgaiaren mota eta prezioa oihukatzea ere erosleak erakartzeko.

23. artikulua

Honako hauek arau-hauste larriak izango dira:

1. Arau-hauste arinaren ondorioz zehapena jarri zenetik sei hilabete baino gehiago igaro ez direnean beste arau-hauste arin bat egitea.
2. Ordena asaldatzen duten istiluak.
3. Jardunaren ondorioz sortu ondoren, hermetikoki itxi daitezkeen ontziak eta garbi-garriak, hondakinak, zaborra eta eta objektu erabilgaitzak ez jasotzea eta horretarako adierazitako tokian ez botatzea.
4. osasungarritasun eta higiene baldintza egokietan ez mantentzea eta horiekin mugakideak diren korridoreak garbitasun baldintza ezin hobeetan ez izatea.
5. Nahitaezko baimenak eta lizentziak aurretiaz lortu gabe obrak gauzatzea.
6. Postua bere probetxuan erabiltzeko eskubideen emakida baimendutakoekiko helburu desberdinetara bideratzea, hala nola, baimendu gabeko artikulua saldu edota erakustera.



7. Salmentarako erakusten diren salgaiak jendeari saldu nahi ez izatea, betiere jarre-
ra horren azpian jokabide maltzurra dagoenean.

8. Prezioa mantendu edo igotzeko produktuak erabilezin bihurtzea edo kentzea.

9. Merkatuan arreta eskaini edo laguntzen duten pertsonak Gizarte Segurantzari, da-
gokien araubidean, ez egotea.

24. artikulua

Honako hauek oso arau-hauste larriak izango dira:

1. Arau-hauste larriaren ondorioz zehapena jarri zenetik urtebete baino gehiago igaro
ez denean beste arau-hauste larri bat egitea.

2. Ordena asaldatzea edo edozein istilu edo liskar sustatzea, pertsonengan eta gau-
zetan kalteak eragiten direnean.

3. Postua beste bati errentatzea edo emakida legez kanpo eskualdatzea.

II. KAPITULUA

ZEHAPENEI BURUZKOA

25. artikulua

Zerga, osasun, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsaren arloan eta aplikagarria
izan daitekeen bestelakoan indarreko xedapenen ondorioz jar daitezkeen zehapenez
gain, arautegi honetako arau-hausteak adjudikaziodunak edo, hori izan ezean, udal ad-
ministrazioak zehatuko ditu idatzizko jakinarazpenaren bitartez.

1. Arau-hauste arinak: ohartarazpena edo 50,00 euroko isuna.

2. Arau-hauste larriak: 150,00 euroko isuna edota gehienez 60 egunez establezimen-
dua ixtea.

3. Arau-hauste oso larriak: 1.000,00 euroko isuna, emakida suntsiaraztea baztertu
gabe.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau Udalbatzak behin betiko onartu du eta oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofi-
zialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, 15 egunen buruan sartuko da indarrean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratzen da Getxoko Udal Mer-
katuen Zerbitzu Publikoko Araubidearen Araudia 1998ko maiatzaren 29ko osoko bilkura-
ko erabakiaren bidez onetsi zena.